# OLATUAK

LABURPENA

## *Kulturaren ikuspegitik Gipuzkoan Garapen Jasangarriko Helburuak sustatzen dituzten proiektu puntualetarako laguntzak*

### ESKATZAILEAK:

10 langile baino gutxiagoko eta 2 milioi euroko negozio-bolumena duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta mikroenpresak, baldin eta helbide fiskala Gipuzkoan badute.

Diruz lagungarriak diren proiektuak era askotakoak izan daitezke: prestakuntza, sentsibilizazioa, zabalkundea edo koordinazioa arlo artistiko ezberdinetan, epe laburrean garatzen direnean.

Proiektuek barne har ditzakete garatzeko beharrezkoak diren funtzionamendu-gastuak.

**Kanpo geratzen dira** ondasun inbentariagarriak, besteak beste.

***Erakunde edo mikroenpresa eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetara.***

## GEHIENEZ 6.000 €

### AURKEZTU BEHARREKOA:

- Eskaera orria beteta.

- Dirulaguntzaren xede den proiektu, programa edo jardueraren azalpen-txostena.

- Proiektuaren diru-sarreren eta gastuen gastuen aurrekontu xehatua (horretarako aplikazioan atxikitzen den eredua bete).

### BALDINTZAK:

- Unean uneko proiektuak izatea: epe laburrean (egun batean, astebetean…) garatzen direnak.
- Gipuzkoan garatzea.
- Deialdiaren urtean garatzea (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).
- Ekonomikoki bideragarriak izatea.
- Gutxienez GJHetako (Garapen Jansangarrirako Helburuak) bati atxikitzea.

### BALORAZIOA BI FASETAN:

1. fasea: erakunde eskatzailearen ezaugarriak eta proiektua deialdiaren helburura egokitzen den baloratuko da, gehienez, 70 puntu.

2. fasea: aurrekontua proiektuarekin bat datorren baloratuko da, bai eta zeharkako beste gai batzuk ere, hala nola hizkuntza ofizialen erabilera, genero-berdintasuna eta gazteen parte hartzea, gehienez, 30 puntu.

*Balorazioan, 1. fasean 35 puntu lortu beharko dira 2. fasera igaro ahal izateko, eta **gutxienez 50 puntu lortu beharko dira bi faseen baturan,** proiektua dirulaguntza emateko proposamenean sar dadin.*

| 1. fasea | 70 |
| --- | --- |
| Garapen Jasangarriko helburuetako bati gutxienez egokitzea eta izaera berritzailea izatea | 40 |
| Parte hartzeko kanalak irekitzeko eta beste kultura-eragile batzuekin lankidetza-sareak antolatzeko gaitasuna | 10 |
| Proiektua planteatzen den testuinguruaren deskribapena | 10 |
| Proiektuaren hedapen digitala | 10 |
| **2. fasea** | **30** |
| Aurrekontua eta baliabideak | 10 |
| Hizkuntza ofizialen erabilera | 10 |
| Emakumeen eta gazteen parte-hartzea | 10 |

**DIRU KOPURUA**

Dirulaguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen %70a.

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren% 30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

## EPEAK

- ESKAERAK AURKEZTEKO

Dirulaguntza horien eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da.

Azken eguna: 2022-03-31

•ZURIKETA AURKEZTEKO

Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 1era izango da.

- ORDAINKETA:

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 ebazpenarekin batera eta gainerako %40a zuriketa aurkeztu ondoren.

## TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/)
Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNIe...)

Taula hauek K bulegoak egindako laburpenak dira. Oinarrien detaile guztiak, eskaerak aurkeztu, inprimakiak eta aurkeztu beharrezko dokumentazioa:
G.A.O. zk.78, 2021eko apirilaren 29koa    Deialdia. Olatuak

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailez edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudekin.

**www.kbulegoa.eus**

**(+34) 943 113 343 / kbulegoa@gipuzkoa.eus**
**Errege-erregina Katolikoen kalea, 16**
**20006 Donostia.**

**Astelehenetik ostiralera: 09:00-14:00**

***Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu, bulego ordutegitik kanpo ere.**